

Kulturaren Plan Estrategiko berri bat Nafarroarako **2024-2028**

Liburu eta liburutegien mahaian parte
hartzten dutenentzako
lan-koaderno

Aurkibidea

1.- Aurkezpena	3
2.- Nola egingo dugu lan saioan?	4
Lehen Zatia	
3.- Abiapuntua: datu interesgarri batzuk	5
3.1.- Zer ondorio atera dira 2017-2023 NKPE-tik liburu eta liburutegiei dagokienez?	5
3.2.- Nafarroako liburu eta liburutegien egungo egoerari buruzko zenbait erreferentzia	9
3.3.- Lehenengo gogoetak eta erronkak liburu eta liburutegien eremuan	15
Bigarren zatia	
4.- 2024-2028 NKPE berri baterako gogoetak eta ideiak partekatzen	16

1.- Aurkezpena

Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Foru Komunitaterako Kulturaren Plan Estrategiko bat (NKPE) egitea sustatu, koordinatu eta kudeatzen du datozen urteetarako (2024-2028).

Zein

helburu lortu nahi da?

Ekintza Plan bat eraikitzea da helburua, aurreko Planaren (2017-2023) ebaluazioan, egungo egoeraren diagnostikoan eta sektore profesionalaren eta herritarren ekarpenetan oinarrituta, Nafarroako kulturaren arloko jarduerak orientatzeko eta balioesteko tresna gisa balioko duena.

Nola

eratzten da Plan hau?

4 lan-fase zehaztu dira:

I. eta II. faseetan, 2017-2023ko NKPE-aren ebaluazioa eta Nafarroako kultura- eta sormen-sektorearen egungo egoeraren diagnostikoa garatu dira.

III. fasean, herritarrekin eta kultura- eta sormen-eragileekin partaidetza-prozesuari heltzen zaio, zenbait lan-mahai antolatuz.

Azken fasean 2024-2028 NKPEa egingo da.

Lurralde mahaien

helburua

Parte-hartze prozesua 2023ko azaroaren 6an hasiko da 15 saio sektorial, lurraldekoak eta zeharkakoak eginez hainbat herritan. Mahai sektorialak Iruñean egingo dira, eta gai hauek jorratuko dituzte: museoak; ondarea; arte plastikoak eta ikusizkoak; ikus-entzunezkoen industria/industria digitala; artxiiboak eta dokumentu-ondarea; liburuak eta liburutegiak; arte eszenikoak eta musika.

Kulturaren eta sormenaren arloko profesionalen/eragileen eta horien azpistema guztien beharrak/zailtasunak/ahuleziak identifikatzea da helburua, eta 2024-2028 NKPE-aren estrategiak eta jarduera-ildoak eraikitzeke balioko dieten ekintza-proposamenak ezartzea. Mahai hauek interesa duen edozein kultur eragileri irekiak dira, eta izena eman ahal izango dute beren hausnarketak eta proposamenak partipianavarra webgunearen bitartez adierazteko.

2.- Nola egingo dugu lan saioan?

Nafarroako liburu eta liburutegien beharrian eta lehentasunei buruz modu partekatuan hausnartzeko eta behar horiei erantzuteko gure ideiak emateko aukera izango dugu. Saioareen gidoia honako hau izango da:

Edukia	Arduraduna
Lehen zatia	
Ongi etorria NKPE saioaren helburuak Testuinguru orokor laburra: aurreko planaren ebaluazioaren eta Nafarroako liburu eta liburutegien egungo egoeraren diagnostikoaren emaitzak; hasierako gogoetak eta erronkak	Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia Ikerpartners
Bigarren zatia	
1. Lan dinamika: Kulturaren balio-katea kontuan hartuta, zer behar, zailtasun eta ahulezia aurkitzen ditugu Nafarroako liburu eta liburutegien eremuan? Dimentsio bakoitzean zailtasun eta ahulezia horiek identifikatzea eta lehenestea da helburua. Metodologia: Banakako gogoeta laburra + Taldekako gogoeta	Saioko parte-hartzaileak Ikerpartnersek dinamizatu
2. Lan dinamika: NKPE 2024-2028 berrirako IDEIEN MAPA bat eraiki Nola erantzun diezaiekegu aurkitutako zailtasunei? Nafarroan liburu eta liburutegien eremua garatzeko ideiak eta ekarpenak Metodologia: Taldekako lana + Taldekako gogoeta	Saioko parte-hartzaileak Ikerpartnersek dinamizatu
Saioareen amaiera	
Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia	

LEHENENGO ZATIA

3.- Abiapuntua: datu interesgarri batzuk

3.1.- Zer ondorio atera dira 2017-2023 NKPE-tik liburu eta liburutegiei dagokienez?

1. Liburutegietara bideratutako gastua handitu egin da, eta kultura-argitalpenetara bideratutakoa ia zazpi aldiz handitu da

2017 – 2022 urteen artean % 36,1 igo da liburutegietara bideratutako gastua, eta ia 290.000 euro igo da liburu eta argitalpen kulturalen kasuan. Bi kasuetan, goia jo dute 2022an (6,1 milioi euroko gastua eta 338.000 eurokoa, hurrenez hurren).

Liburutegiek 31 milioi euroko gastua izan dute aldi osoan, ondarearen alorreko guztizko gastuaren % 30 eta kulturako guztizko gastuaren % 12. Liburuaren eta kultura-argitalpenen kasuan, aldiaren guztizko gastua milioi bat eurokoa izan da: kultura-ekintzako gastuaren % 0,9 eta kulturako gastu osoaren % 0,4.

Kulturan gauzatutako gastuaren bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

Gastua nora bideratzen den:	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Kulturako Zerbitzu Nagusiak	4.166.832	4.341.317	4.599.146	4.798.350	4.803.888	5.045.239
ONDAREA	13.892.242	16.750.190	17.334.227	17.484.266	18.465.880	19.857.797
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	3.425.546	4.892.517	5.189.641	4.696.516	4.692.644	4.752.923
Liburutegiak	4.505.870	4.829.700	5.082.759	5.305.996	5.525.933	6.134.272
Museoak	3.794.190	4.638.280	4.525.953	4.918.852	5.349.750	5.784.732
Artxiboak	2.166.636	2.389.693	2.535.874	2.562.902	2.897.553	3.185.870
KULTURA-EKINTZA + KSI	17.844.054	18.602.440	21.549.039	20.860.151	22.549.949	25.334.638
Musika, dantza, antzerkia, zinematografia eta beste arte eszeniko batzuk	6.317.970	5.910.998	6.565.999	5.950.219	6.069.755	6.556.6133
Liburuaren sustapena eta kultura-argitalpenak	48.502	45.636	47.835	295.285	323.052	337.556
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	11.477.582	12.645.806	14.935.205	14.614.647	16.157.142	18.440.469
Guztizko orokorra	35.903.128	39.693.947	43.482.412	43.142.767	45.819.717	50.237.674

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

2. Liburutegi eta liburuetarako eta kultura-argitalpenetarako transferentzia arruntak handitu egin dira 2019 eta 2022 bitartean, % 49 eta % 5, hurrenez hurren.

2019-2022 aldian egindako transferentzia arrunt guztien % 12,5 Ondarera bideratu da, eta ehuneko horretatik % 0,3 Liburutegietara. Ondarearen esparruan garrantzitsuak dira museoetarako transferentzia arruntak, 11 milioi euro inguru biltzen baitituzte 2017-2022 aldian. Liburuaren eta kultura-argitalpenen kasuan, Kultur Ekintzara egindako transferentzia arrunten % 0,5 dira, eta horrek, berriz, kulturako transferentzia guztien % 87 egiten du.

Transferentzia arrunten bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

Gastua nora bideratzen den:	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2017-2022
Kulturako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak			13.811				13.811
ONDAREA	1.575.599	1.697.050	1.739.387	1.907.067	2.139.815	2.901.928	11.960.846
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	174.539	104.469	116.835	120.031	143.075	236.471	895.420
Liburutegiak			14.161	97		21.079	35.337
Museoak	1.485.903	1.570.472	1.594.400	1.761.613	1.918.031	2.616.629	10.947.048
Artxiboak	15.157	22.109	13.991	25.326	78.709	27.749	183.041
KULTURA-EKINTZA + KSI	10.949.277	11.774.022	13.793.963	14.170.719	15.241.904	17.548.337	83.478.222
Musika, dantza, antzerkia, zinematografia eta beste arte eszeniko batzuk	5.909.381	5.738.298	6.363.395	5.950.219	5.813.667	6.291.755	36.033.715
Liburuaren sustapena eta kultura-argitalpenak				140.149	142.538	146.786	429.473
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	5.039.896	6.035.724	7.430.568	8.080.351	9.285.699	11.109.796	46.982.034
Guztizko orokorra	12.624.876	13.471.072	15.547.161	16.077.786	17.381.719	20.450.265	95.552.879

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

3. Ondarean egindako inbertsioen % 20 liburutegietara bideratzen da.

2017-2022 aldian Inbertsioetara bideratutako 21.436.621 milioi euroetatik, Ondareak 20,7 milioi euro pilatu ditu, hau da, egindako inbertsio guztien % 96,4.

Ondarearen esparruan, liburutegiak inbertsioen azken-aurreko tokian daude, 2017-2022 aldian inbertitutako guztizkoaren % 20rekin; lehenik eta behin, ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea dago, % 41ekin; ondoren, artxiboek daude (% 23) eta, azkenik, museoetako inbertsioak (% 16).

Inbertsioen bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

Gastua nora bideratzen den:	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2017-2022
Kulturako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak	36.405	78.000	30.246	52.585	62.888	62.636	322.760
ONDAREA	1.917.716	3.489.383	3.460.848	3.621.626	4.178.147	3.987.451	20.655.171
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	661.091	1.426.188	1.427.274	1.506.041	1.664.877	1.763.205	8.448.676
Liburutegiak	522.803	535.941	691.109	726.934	818.676	795.563	4.091.026
Museoak	224.877	851.296	523.902	584.843	704.064	390.362	3.279.344
Artxiboek	508.945	675.958	818.563	803.808	990.530	1.038.321	4.836.125
KULTURA-EKINTZA + KSI	103.050	46.044	63.363	101.498	92.554	52.181	458.690
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	103.050	46.044	63.363	101.498	92.554	52.181	458.690
Guztizko orokorra	2.057.171	3.613.427	3.554.457	3.775.709	4.333.589	4.102.268	21.436.621

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

4. Next Generation funtsak

Nafarroa Suspertzeko Planaren esparruan Next Generation funtsekin finantzaturako proiektuen artean, liburutegiak hornitzeko partida bat dago, 201.954 euroko aurreikusitako finantzaketarekin.

5. 2017-2023 NKPE-aren ekintzen aurrerapen nabarmena liburutegien esparruan

NKPEren ekintza-ildoetako bat, 9. ardatzean, kultura-sektoreei eta balio-kateari buruzkoa, Nafarroako liburutegi-sarea kohesionatzea eta indartzea zen, eta helburu hori lortu dela uste da liburutegi-sarearen lurralde-hedapen zabalarekin eta jardueren hedapenarekin. Gainera, 2017az geroztik, 4 milioi euro baino gehiago inbertitu dira Nafarroako liburutegien sarean, eta horien helburu nagusia izan da funtsak erostea, katalogatzea, digitalizatzea eta funtsak zabaltzea, eta sareko sistema informatikoak egokitzea eta eguneratzea.

Gainera, liburutegien eremuak esku hartu duen ekintzen bidez, zeharka lagundu da Planaren aurrerapenean, hala nola:

- Nabarmentzekoa da Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareak kultura lurraldean zabaltzeko duen papera, 100 liburutegi baititu; horien artean, Bibliobusa eta Aurizberri/Espinaleko Liburutegitik zerbitzu mugikor bat. Sare horrek Nafarroako 128 udalerriri ematen die zerbitzua, horietako batzuk oso txikiak, eta horien artean daude bibliobusaren 42 herriak (8.200 biztanle), Nafarroako biztanleriaren % 96ari estaldura emanez.
- Liburutegietako profesionalak profesionalizatzen lagundu du, eta Planaren indarraldian prestakuntza-eskaintza zabala eskaini du (50 ikastaro inguru), 2.000 profesionalak parte hartuta.
- Nafarroan kulturaren eta sormenaren arloan publikoak garatzen eta sentsibilizatzen lagundu du, ikasleei berariaz zuzendutako jardueren bidez (bisitak, tailerrak, etab.).

3.2.- Nafarroako liburu eta liburutegien egungo egoerari buruzko zenbait erreferentzia

Liburutegien kopurua mantendu egin da 2012ko zenbakietan, 100.000 biztanleko 22,7 liburutegiko ratioarekin.

Liburutegi kopuruaren bilakaera Nafarroan. 2012-2020

	2012	2014	2018	2020
Liburutegiak guztira	149	140	129	149
100.000 biztanleko liburutegien ratioa	23,3	22		22,7

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Liburutegien estatistika: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Liburutegi kopuruaren bilakaera Nafarroan, titulartasunaren arabera. 2012-2020

Titulartasunaren arabeko banaketa	2012	2014	2018	2020
Guztira	149	140	129	149
Estatuko administrazioa	6	6	4	5
Admin. Autonomikoa	13	19	28	18
Tokiko administrazioa	95	82	72	95
Pribatua	28	27	19	26
Unibertsitatekoa	5	5	4	3
Bestelakoak	2	1	2	2
Ez dago jasota	0	0		

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Liburutegien estatistika: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Argitalpen-sektoreko enpresen kopurua % 15,5 jaitsi da 2017 eta 2022 bitartean, eta erdiak baino gehiagok ez du soldatapeko langilerik (% 53,2). Enplegu osoaren % 78 erregimen orokorrean dago eta % 38 emakumeak dira.

Nafarroako argitalpen-industriako enpresak, soldatapeko pertsonen tartearen arabera. 2017-2022 (urte bakoitzeko urtarrilaren leian)

Enplegu tarteak	2017	2022
Soldatapekorik gabe	234	192
1-2 soldatapeko	110	97
3-5 soldatapeko	36	36
6-9 soldatapeko	16	10
10-19 soldatapeko	13	8
20-49 soldatapeko	15	13
50-99 soldatapeko	0	3
100-249 soldatapeko	3	2
Guztira	427	361

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Nafarroako Enpresen Direktorioa (DENA).

Erregimen orokorreko afiliazio kopurua eta autonomoak argitalpen-industrian, Nafarroako Gizarte Segurantzaren arabera. 2017-2022

Afiliazioak	Autonomoak	Erregimen orokorra	Guztira	% Emakumeak
2017	391	1.296	1.687	% 38,3
2022	360	1.266	1.626	% 37,9

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, GSDOK lagatako Gizarte Segurantzako afiliazioari buruzko datuetan oinarrituta.

2021etik 2020ra, liburutegietako langileen guztizko enpleguak pixka bat egin du behera (-%9,5), eta lanaldi osoko langile baliokideak % 5,5 egin du gora.

Nafarroako liburutegien zerbitzuko langileen eta lanaldi osoko langile baliokideen bilakaera, plantillan sartuta daudenak. 2012-2020

Enplegua	2012	2014	2018	2020
Guztira	455	404	396	412
Lanaldi osoaren baliokidea	347,9	322,1	338	367

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Liburutegien estatistika: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Nafarroako argitalpen-produkzioa 1.100 liburu eta liburuxka inguruan mantendu da, baina liburuen argitalpena % 4,2 murriztu da 2017-2020 aldian.

Argitalpen-ekoizpenaren bilakaera Nafarroan. 2017-2020

Argitalpen ekoizpena	2017	2018	2019	2020
Guztira	1.126	1.071	1.153	1.100
Liburuak	1.033	940	1.033	990
Liburuxkak	93	131	120	110

Iturria: Liburuen Argitalpen Ekoizpenaren Estatistika. EIN. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak

Erregimen orokorreko afiliazio kopurua eta autonomoak argitalpen-industrian, Nafarroako Gizarte Segurantzaren arabera. 2017-2022

Afiliazioak	Autonomoak	Erregimen orokorra	Guztira	% Emakumeak
2017	391	1.296	1.687	% 38,3
2022	360	1.266	1.626	% 37,9

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, GSDok lagatako Gizarte Segurantzako afiliazioari buruzko datuetan oinarrituta.

Nafarroako liburategietan izena eman duten erabiltzaileen kopurua % 29,2 igo da 2012 eta 2020 artean. Aitzitik, bisitarien kopurua % 63,1 jaitsi da.

Nafarroako Liburutegietan izena emandako erabiltzaileen eta bisitarien bilakaera. 2012-2020

Erabiltzaileak eta bisitariak	2012	2014	2018	2020
Inskribatutako erabiltzaileak	285.621	317.844	318.288	369.100
Persona helduak	--	--	262.422	310.000
Adingabeak	--	--	55.866	59.100
Inskribatutako erabiltzaileak, 100.000 biztanleko	44.627	49.940	--	56.224
Bisitariak	4.321.131	4.341.971	4.138.561	1.594.400

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Liburutegien estatistika: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Kultura-ohiturak eta -praktikak. Liburutegira joan edo Internet bidez sartu ziren Nafarroako biztanleen ehunekoak behera egin du.

Nafarroan liburutegietan izena eman duten erabiltzaileen kopuruak gora egin badu ere azken urteotan, ekipamendu horietara joaten diren Nafarroako biztanleen kopurua jaitsi da: % 37,7 ziren 2014an, eta % 18,6, berriz, 2022an.

Nafarroako biztanleek adierazi dituzten liburutegietara ez joateko arrazoi nagusien artean, interes falta (% 54,2), denbora falta (% 24,8) eta Covid-19ari lotutako arrazoiak (% 10,3) nabarmentzen dira.

Azken urtean Liburutegi batera joan edo Internet bidez sartu zen Nafarroako biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. 2014-2022

Sarbidea	2014-2015	2018-2019	2021-2022
Erabiltzaileak	37,7	22,8	18,6
Internet bidez sartu ziren	13,7	8,6	5,7

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Nafarroako Liburutegira gehiagotan ez joatearen arrazoiak. 2021-2022

Arrazoiak	2021-2022
Inguruan horrelakorik dagoen ez jakitea	0,4
Funtzionamendua ez ezagutzea (ordutegiak, prezioa, etab.)	0,4
Ordutegi mugatua	1,3
Inguruan ez egotea	2,3
Prestazio gutxi dituzte	0,2
Deserosoak dira	1,1
Denbora falta	24,8
Interes falta	54,2
Nahiago Internet bidez sartzea	2,6
Ez da aurkitzen interesekorik	2,1
Barrutirako irisgarritasun fisikoko arazoak	0,2
COVIDari lotutako arrazoiak	10,3

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Kultura-ohiturak eta -praktikak. Nafarroako biztanleen irakurtzeko ohiturak behera egin du.

Azken urtean libururen bat irakurri duten nafarrak % 72,1 ziren 2014an eta % 64,2 2022an, hau da, 8 ehuneko-puntu gutxiago.

Azken urtean libururen bat erosi duten biztanleen ehunekoak ere behera egin du pixka bat.

Azken urtean liburuak irakurri dituzten pertsonen ehunekoaren bilakaera Nafarroan. 2014-2022

	2014-20105	2018-2019	2021-2022
Liburuen irakurketa	72,1	69,6	64,2

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Azken urtean liburuak erosi dituzten pertsonen ehunekoaren bilakaera Nafarroan. 2018-2022

	2018-20196	2021-2022
Liburuen erosketa	37,0	36,7

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

3.3.- Liburu, liburutegi eta kultura-argitalpenen arloko lehen gogoetak eta erronkak

Atal honetan, KZN-PVE-ko Liburutegi eta Argitalpen zerbitzuekin egindako hausnarketak jasotzen dira, sektoreak gaur egun dituen erronka nagusiak identifikatzeko. Identifikatutako erronka batzuk nabarmendu dira:

1. Liburutegiaren kontzeptuaren bilakaera

- Liburutegiko zerbitzu klasikoak moteldu egin dira, eta espazioa beste modu batean ulertzeko joera dago, topaketarako eta sozializatorako gunetzat ulertzeko joera, alegia. Liburuari edo irakurketari nahitaez lotuta egon behar ez diren programazioa eta guneak eskatzen ari dira, kulturaren zentzu zabalago baten ildoan.

2. Zerbitzu hau eskatzen duten auzo berriak

- Udalerrri batzuetan auzo berriak eratzen ari dira. Horietako gehienetan familia gazteak bizi dira eta liburutegi-zerbitzua auzo horietara zabaltzea eskatzen dute.

3. Zerbitzu-ordutegi zabalagoaren eskaera

- Herritarrek liburutegien ordutegiak eta zerbitzua ematen den asteko egunak luzatzea eskatzen dute. Eskari hori oso lotuta dago ikasteko ohiturarekin.

BIGARREN ZATIA

4.- 2024-2028 NKPE berri baterako gogoetak eta ideiak partekatzen

Saioaren zati honetan, hausnarketa partekatua egingo dugu bi ikuspuntutik:

1º. Nafarroan liburu eta liburutegien arloan dauden beharrak, zailtasunak eta ahuleziak identifikatuko ditugu

- Balio-katea oinarriztat hartuta, liburu eta liburutegiekin lotutako hausnarketa-elementu batzuk planteatzen ditugu
- Hautatu kulturean lan egitea LEHENTASUNEZKOTZAT dituzun 4 eremu
- Adierazi ZERGATIK uste duzun zailtasun/behar handiagoa dutela

Horretarako Fitxa 1 jartzen dizugu eskura
(banakako lana + taldekako gogoeta)

2º. Ideia eta ekarpen MAPA BAT marrartzuko dugu, lehenetsi ditugun beharrei erantzuteko.

- Lehen identifikatu den dimentsio bakoitzerako, asmoa da taldean ondorengo galderari erantzutea: nola erantzun diezaiekegu aurkitutako zailtasunei?
- Zer proposatzen dugu Nafarroan liburu eta liburutegien egoera hobetzeko?

Horretarako Fitxa 2 jartzen dizugu eskura
(taldekako lana + taldekako gogoeta)

1. Dinamika. **GOGOETA-ELEMENTUAK**, balio-katetik eta beste gogoeta batzuetatik abiatuta proposatzen ditugunak, Nafarroako liburu eta liburutegien eremuko beharrak, zailtasunak eta ahuleziak identifikatzeko. Hasieran planteatu ez diren beste gai batzuk identifikatzeko proposamen irekia (*1. fitxarekin batera joango da bakarkako lanerako*).

Liburutegiaren kontzeptuaren bilakaera (zerbitzuak, espazioak... egokitzea)

Eskaintza: zerbitzuak eta jarduerak (liburutegi-sarea zabaltzea, jardueren eta zerbitzuen eskaintza zabaltzea...)

Kultura-ohitura eta -kontsumoa (irakurketa sustatzea, erosteko ohiturak...)

Balioan jartzea eta zabalkundea

Eraldaketa digitala, berrikuntza

Baliabideak eta laguntzak (finantzaketa)

Sektorearen profesionalizazioa (prestakuntza, lan-baldintzak...)

Jabetza intelektualak (merkatu digitala...)

Beste gai batzuk

Beste gai batzuk

Beste gai batzuk

Beste gai batzuk

2. Dinamika. Ideia eta ekarpen MAPA BAT marraztuko dugu, lehenetsi ditugun beharrei erantzuteko

Lehenetsitako eremua

Nola hobetu dezakegu egoera? Garatzeko/indartzeko ideiak

Erantzukizunak: garapenerako eragile nagusiak (administrazio publikoa, kultur eragileak, herritarrak, hirugarren sektorea...)

Eremu 1

Eremu 2

Eremu 3

Eremu 4

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroan datozen urteetako
Kultura Plan Estrategiko bat eraikitzeko erronkan
aktiboki parte hartu duten pertsona
eta erakunde guztiei